

Elgoibar - 1303. zenb.  
XXX urtea - 2023-10-27



TOKIKOM

BARREN

# Mozorro dantzarako gonbita

Amorante



**623 191 571**  
Zizilion kalea 3, P1  
20870 Elgoibar



**Edozeinek egin dezake CrossFit. Emakume nahiz gizon, adin tarte guztietan egin daiteke, eta osasuntsu egoteko eta sasoiako jartzeko modurik onena dela esan dezakegu.**

► **Zer da CrossFit?**

Gaitasun fisikoa hobetzeko egiten den entrenamendu sistema bat da, ariketa funtzioaletan eta intentsitate desberdinetakoetan oinarritutakoa. Gorputza eta gaitasun fisikoak osotasun batean lantzen dira, eta hori bera da beste kiroleetatik edo kirol zentro tradizioaletik bereizten duen ezaugarriarik aipagarriena. Crossfit eginda egunerokorako prestatzen gara gaitasun fisiko guztiak aldi berean lantzen direlako.

► **Kanpotik ematen duen bezain gogorra al da?**

Alderantziz. Egia da entrenamendu intentsoak izaten direla CrossFitean, baina pertsona bakoitzari egokitutako ariketak izaten dira, norberaren intentsitate, indar eta zailtasunera moldatutakoak. Ordu beteko ikastaroak izaten dira, entrenatzaile batek gidatuak. Bakoitzaren mailaren arabera moldatzen ditu ariketak entrenatzaileak eta tratu guztiz pertsonala ematen du.

► **Orduan, edozeinek egin dezake CrossFit?**

Bai horixe! Ez da beharrezkoa sasoiaren egotea edo esperientzia izatea CrossFit egiten hasteko. Adin, egoera fisiko eta kirol esperientzia oso desberdinetako pertsonak aurkituko dituzu CrossFit klase berean. Klaseak, baina, pertsonalizatuak dira, bakoitzak aukera izan

dezan lortu nahi duen aldaketa hori lortzeko. Ez zara sasoiaren egon behar CrossFit egiteko; sasoiaren jartzen zara CrossFit egiten!

► **Zergatik dago hain modan?**

Kirola egitea eta sasoiaren egotea dibertigarria izatea lortu du CrossFitak; hori da kirol honen iraultza, gainera; epe luzean aritzeko ohitura hartzea errazten duen diziplina dela esango genuke. Horretaz gain, emaitza fisikoak epe motzean ikusten dira, erronka berriei aurre egiten eta beste pertsona batzuekin ondo pasatzen dugun bitartean; horregatik ditu hainbeste zale mundu osoan zehar. CrossFit egitea deskonektatzeko eta burua argitzeko modu paregabea da, oasis txiki bat eguneroko errutina barruan. Horregatik esaten da CrossFit egiteko ordua eguneko ordurik onena dela.

► **Zer esango zenioke CrossFit probatzeko zalantza duen norbaiti?**

Beldurrik izan ez dezaten, SUAn entrenatzaile onenak ditugula. Ariketa eta mugimendu guztiak oinarritik azaltzen hasiko gara, eta zure gaitasun eta erritmora moldatuko gara ariketa bakoitzean. Ordu-tegi zabala eskainiko dugu, 06:30etatik 21:30ak arte astean zehar, baina larunbat goizetan ere zabalik izango dugu zentroa. Gainera klase orduak sakelako telefonoko aplikazio baten bitartez erreserbatzen dira, zure denbora antolatzeko modu ezin hobea dela uste dugulako.

**Aurre-inskripzioak: 📞 623 191 571 / [info@suacrossfit.com](mailto:info@suacrossfit.com)  
Eman izena orain eta aprobeztatu irekiera tarifa bereziak!**

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Ane Astiazaran

Itzultzailea

## Fikzioa politizatzearen apologia



**"Zergatik ez dugu politika fikziora eramaten? Zergatik ez diogu ikuspegi kritiko horri gure fikzioan lekurik egiten?"**

**G**enozidio, gatazka politiko edota sarraski hitzak ahoz aho dabilzan honetan, huskeria litzateke beste ezeri buruz idaztea. Zer dugu guk esateko beste ezere inguruan? Zer dugu kexa? Zer aldarrikapen? Argi dago ez diodala ezer berririk gehituko palestinar erresistentzia mahai gainean jartzen duen diskurtsoari, eta iruditzen zait zer gertatu den komunikatu baino gehiago, nola komunikatu pentsatzea izan daitekeela gakoetako bat.

Izan ere, esango nuke bai palestinarrek eta baita beste milioi bat erresistentziak ere zabalkunderako ez dutela ia tokirik. Ez naiz ari prentsez, erreportajeez, artikuluez; fikzioaz ari naiz, eleberriez, ikus-entzunezkoek. Ezin dugu kulturaren botere eraldatzailea gutxietsi, eta ezinbestekoa da fikzioari duen balioa ematea, baina balio horrekin batera baita dimentsio politiko bat ere.

Izan gaitezen zintzoak geure buruarekin. Gutako zenbatek irakurtzen ditu saiakerak? Gutako zenbat sakontzen dira erreportaje batean? Gutako zenbaten ustez dira aspergarriak dokumentalak? Fikzioak erakarri egiten du, entretenitzea baitu helburu, eta helburu soil hori dugunean, gure burmuinak beso zabalik hartuko du diskurtsoa, barneratuko ikuspegi politikoa. Beraz, zergatik ez dugu politika fikziora eramaten? Zergatik ez diogu ikuspegi kritiko horri gure fikzioan lekurik egiten?

Imajinario kultural berriak eraiki behar baditugu, irauli egin behar dugu diskurtsoak zabaltzeko modua. Hala, estrategia egoki bat erabiliz pentsamendu kritikoa sustatzen ariko baikara, horrela (etorriko diren) gatazkek eztanda egiten dutenerako hausnartu eta garatutako diskurtso propio eta kolektibo bat izango dugulako.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

## Elgoibarren, Errigorako komunitatearekin ospatuko dugu 10. urteurrena

Errigorak 10 urte egin ditu, eta egitasmoa posible egiten dugun guztiok in batera ospatu nahi dugu Elgoibarren. Errigoraren neguko saskia noizbait erosi duzuen guztioi dei egiten dizuegu datorren ostegunean Kultur Kafeko pintxo-potera etortzeko. Errigorako osagaien bat erabiliko dute pintxo egiteko.

Pintxo-potea aitzakia bat baino ez da Errigoraren Elgoibarko Komunitatea elkartzeko, hitz egiteko eta, batez ere, ospatzeko. Keinu txikien bidez gauza handiak egiten ari baikara; gauza ikaragarri handiak... Neguko kanpainaren bidez, hamar urtean 1,8 milioi bideratu ditugu guztion artean Nafarroako hegoaldera, euskarak aurrera egiteko oztopo nabarmenak dauzkan eremu batera. Eta diru horri esker, euskarazko errotuluak jarri dira Lodosa, Mendabia eta Sargagudan, euskarazko ludotekak jarri dira abian hainbat herritan, euskara planak enpresetan, euskarazko kirol- eta kultur-jarduerak...

Azaroaren 2an, zatoz Kultur Kafera, topa egitera. 19:00etatik aurrera elkarrekin hitz egin eta pintxo dastatu ondoren, argazkia aterako dugu.

Errigoraren Elgoibarko Taldea

## Hau da gure komunitatea-Herri Eskolako jai

Larunbatean, Herri Eskolako jai ospatu genuen, gure komunitatearen jai, bihotzez, energiarekin, eta alaitasunez antolatutakoa. Eskolako ateak zabalduta genituen. Jai giroan eta elkarlanean egitarau bikaina osatu genuen: txapak, herri-kirolak, idazketa arabiarra, makilajea, henna, kareta, trentza afrikarrak, pultserak, 500 pertsona baino gehiago bildu zituen bazkaria, erromeria eta txokolatada. Jai koloretsu eta alai! Mundiala!

Elkarlanean aritu ginen eskolako zuzendaritzakoak, irakasleak, guraso elkartekoak, ikasle ohiak, familiak eta hainbat eta hainbat boluntario; gure izaera aldarrikatuz, izaera publikoak harro, guztiontzat eta guztiona den hezkuntzaz, eskolaz eta jaiaz gozatuz.

Hamaika kolore, hamaika kultura, hamaika pentsamolde, eta denok bat eginda gure seme-alaben etorkizunari begira, euskaraz eta jai giro ederrean. Gure eskolaz harro sentitzen gara; hauxe da gure eredia, bihotzez, konbentzimenduz eta lankidetzan eraikia; kolore askotarikoa. Denontzat tokia duen eskolaren alde ari gara lanean.

Datorren ikasturtean bertan izango gara berriz ere. Gure eskolako ateak zabalduko ditugu, nahi duen orok gurekin goza dezan egun hau. Beraz, mila esker gure egunerokoa posible egiten duzueno eta festan gurekin izan zineten guztioi! Eskerririk asko bihotzez eta gora Euskal Eskola Publikoa!

Elgoibarko Herri Eskola

# MANIFESTAZIOA BILBON

**Azaroak 4, larunbata - Euskalduna - 17:00**

**AUTOBUSAK, Elgoibartik eta Mendarotik.**

Autobusean izena emateko:

Jai Alai tabernan

Elgoibarko Izarraren bulegoan

943 741 626 - [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

Mendaron: Morroskillo dendan.

Prezioa: 10€. Autobuserako izena emateko azken eguna: urriak 31

OLDARRALDIAREN  
EUSKARAREKIN  
BAT  
EUSKARAZ  
BAT  
AURREAN





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

📞 943 744 112 📞 688 655 658



### Urazandi auzoko espaloiak hondatuta daude:

"Urazandi auzoko 34 zenbaki inguruan espaloia hondatuta dago. Zuloak ditu, eta zaila izaten da gurgildun aukiarekin bertatik pasatzea. Bide batez, espaloi asko zahartuta eta labainak daude auzoan, eta uste dugu badagoela Urazandiko espaloietan berritze lanak egiteko beharra".



### Autoak gaizki aparkatuta egoten dira Sallobenterako bidean:

"IMH inguruan, Sallobenterako bidea hartzen den lekuan, autoak gaizki aparkatuta egoten dira, eta bidea oztopatzen dute. Kamioi handiak pasatzen dira hor inguruan dauden enpresetara joateko, eta ez da lekurik egoten beste auto batekin gurutzatzeko. Sustoren bat izan dugu, eta egunen baten ezbeharren bat gertatuko da. Udaltzaingora ere deitu dugu egoeraren berri emateko, eta eskatu nahi diegu neurriak hartzeko. Hori ez da aparkalekia!".



### Zein asmo dauka Udalak Artekaleko eskailera mekanikoekin?:

"Inguru horretan bizi garenok eskailera mekanikoen falta handia daukagu, batez ere, adinean sartuta gaudenok. Ezin ditugu ohiko eskailerak igo, eta sekulako buelta eman behar izaten dugu, kale batetik bestera joateko. Erabateko konponbidea iritsi artean, eskertuko genuke eskailerak martxan jartzea". BARRENEK Udalera jo du, eta Hirigintza Saitetik ondorengo erantzun dute: "Artekaleko igogailuaren aurreproiektua idatzi ondoren, burutze proiektua idazten ari gara. Igogailuaren eraikitze prozesuak diharduen bitartean eskailerak konpontzea aztertu genuen, baina dauden egoera ikusita, ez dela bideragarria ondorioztatu dugu. Egoeraren deserosotasunaz jabetzen gara eta igogailua ahalik eta azkarren jartzen saiatuko gara".



## Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA 1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**.



📞 643 499 169

📞 943 741 626

📧 [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

## 97 lagunek eman dute izena Urruzunoko udal baratzeak erabiltzeko

**E**lgoibarko Udalak 30 metro koadroko 30 baratze egokituko ditu Urruzunon. Horietako bi beretzat gordeko ditu Udalak, eta 28 esleituko dituzte zozketa bidez. 97 lagunek eman dute izena, eta eskaerak aztertu ondoren egingo dute zozketa. Baratzea erabiltzeko lizentziak urtebeteko iraupena izango du, eta urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez hiru urtera arte.

Proiektua azken txanpan dagoela jakinarazi dute Udaletik. Mahaiak eta iturri bat ipintzen dihardute une honetan, eta baita baratzeak mugatuko dituzten hesolak jartzeko lanak egiten ere. Aste honetan armairuak instalatuko dituzte, eta heskaia eta sare-jokoa dagokion lekuan ipini. Azaroan zuhaitzak landatuko dituzte, haurrentzako jolasak jarri eta aparkalekua egokitu.



### Jon Garate 'Katalo' gogoratu zuten zapatuan

Abuztuan hil zen Jon Garate *Katalo*, eta haren ingurukoek omenaldia egin zioten zapatuan, Giza Eskubideen parkean. Katalo nor zen gogoratu zuten, eta eskerrak eman zizkioten presoen eskubideen eta ezker abertzalearen alde egindako lanagatik. Ekitaldiaren amaieran Kataloren ama Bittori Guenaga igo zuten oholtzara eta eta *Txoriak txori* abestu zuten elkarrekin.

### Antzerki tailerra egingo dute Jubilatuen Biltokian, Taupadako kideekin

Taupada antzerki taldeko Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak antzerki tailerra emango dute Jubilatuen Biltokian. Astean behin izango dira saioak, egunetan, 10:30etik 12:30era. Interesatuak jubilatuen egoitzako bulegoan eman behar dute izena, astelehen edo barikuan, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

Horrez gain, Vigora (Galizia) bidaia antolatuko dute, Gabonetako argiak ikusteko. Abenduaren 11tik 15era izango da. Autobusez egingo dute bidaia, eta Vigoko hotel batean hartuko dute ostatu, pentsio osoan. Bidaiaren prezioa 350 eurokoa da, logela bikoitzean. Astelehenean zabalduko dute izena emateko epea.

### Banatu dute San Migel jaietan zozkatutako orgatila

Aiastiako San Migel jaietan saldutako errifaren zozketa egin dute, eta 0210 zenbakia izan da sariduna. Joseba Trueba izan da irabazlea eta dagoeneko jaso du janariz eta edariz beteriko orgatila.



### Autonomia lantzeko zentroa zabalduko dute Mendaron

Mendekotasun, bakardade edo kalteberetasun egoeran dauden pertsonen eta haien familiei laguntzeko gune aktiboa zabalduko dute Mendaron. Pertsona horien autonomia, psikomotrizitatea eta ongizatea lantzea izango da helburua, horretarako propio prestatutako jolas ludiko eta estimulazio kognitiboen bidez. Azaroaren 6tik abenduaren 20ra izango dira saioak, astean bi egunetan, astelehenetan eta eguaztenetan, 10:30etik 13:30era, Lagun Betikoak Jubilatuen Elkartearen.

## Sindikatuaren arabera jarraipen zabala izan du sektore publikoan deitutako grebak

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sektore publikoan asteazken honetan eginiko grebak jarraipen zabala izan du sindikatu deitzaileen arabera. Milaka langilek bat egin dute deialdiarekin eta kalera atera dituzte beraien aldarrikapenak. Langile publiko guztiak zeuden deituta: Eusko Jaurlaritzakoak, aldundietakoak, udaletakoak eta Espainiako Estatukoak, 152.000 gutzira, eta haietatik milaka batzuek babestu zuten ELA, LAB, CCOO, Steilas, SATSE eta ESKren mobilizazioa. Erantzunari dagokionez, halakoetan ohi denez, sindikatuek emandako kopuruek eta Jaurlaritzarenek ez dute bat egin. Sindikatuen arabera, «oso zabala» izan da, eta Jaurlaritzaren arabera, «apala».

Elgoibarren eta Mendaron gutxieneko zerbitzuak bermatu zituzten osasungintzan.

Elgoibarko Udalean lau langilek egin zuten greba, eta Mendaron, aldiz, gehiengoak. Ikastetxeetako dagokienez, martitzenean jarraipen txikiagoa izan zuen grebak, eta eguaztenean, aldiz, irakasle gehiago batu ziren deialdira. IMHn esaterako eguaztenean 15 irakasle egin zuten greba (langileen %24), institutuan %30eko segimendua izan zuen grebak eta Mekan, datu zehatzik eman ez duten arren, asteartean gutxi batzuk egin zuten greba eta asteazkenean erantzun zabalagoa izan zuen deialdiak. Zentro guztietan bermatu zituzten gutxieneko zerbitzuak, eta ahalik eta eskola gehien eman zituzten. Mendaroko ikastolan ezin izan zituzten eskolak normaltasunez aurrera eraman, baina gutxieneko zerbitzuak bermatu zituzten.

### Azaroaren 3tik 26ra izango da Tripontziak egitasmoaren 10. edizioa

Debegesak antolatzen duen Tripontziak egitasmoak 10. edizioa izango du aurtengoa. Eibarko Baratze Gourmet, Elgoibarko Belaustegi, Ermuko Mendiola, Mutrikuko Pikua eta Soraluzeko Txurruka jatetxeek hartuko dute parte aurtengo edizioan eta sasoiako eta tokiko produktuak oinarritutako platerak prestatuko dituzte. Menuak 35 eurokoak dira eta barne hartzen dute aperitibo bat, sarrera, bi plater nagusi (haragia eta arraina) eta Mendaroko txokolatearekin egindako postrea. Ogia, kafea eta ardoa menuan sartzen dira, eta menuak *debarrenaturismo.com* webgunean kontsulta daitezke. Aurreko edizioetan bezala, zozketak egingo dituzte Tripontziak egitasmoan parte hartzen dutenen artean, eta bisita gidatuak ere egingo dituzte Mutrikuko Arrietakua Jauregira,



Eibarko Armagintzaren Museora eta Debako Santa Maria Elizara. Zapatu goizetan, bestalde, bisita gastronomikoak egiteko aukera egongo da, eta produktuak nola egiten dituzten ikusteko eta dastatzeko aukera eskainiko dute. Besteak beste, Chocolates de Mendaro, Goienetxe Gaztandegia, Lizagar Saragartokia edota Lasturko Taloak bisitatzeko aukera egongo da.

### Mintza On saioak antolatu ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak eta EBETE enpresak Mintza On proiektuaren bigarren edizioa jarri dute abian, etxetik eta online euskara praktikatzeko. LH 3, 4, 5, eta 6ko ikasleek har dezakete parte. Astean 45 minutuko saio bat egingo dute, eta gutzira, 24 saio

izango dira ikasturtean zehar. 20 euro ordaindu behar dira. Izena emateko azken eguna azaroaren 1a izango da. Ikastetxean edo online bidez eman daiteke izena: [labur.eus/MintzaONElgoibar](http://labur.eus/MintzaONElgoibar). Informazio gehiagorako: 943 741 050

## Balorazio positiboa egin dute eragileek Jolasaren Asteaz

**B**igarren urtez antolatu dute Atxutxiamaiakak, Udal Ludotekak eta Udal Gaztelekuak Jolasaren Astea, herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean: Eskola Kirola, Zubi Ondo xake elkarte, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola, Lanbide Heziketa, San Lazaro zaharren egoitza eta Egur Arte Tailerra, besteak beste. Jolasa kalera atera zuten denen artean, eta balorazio positiboa egin dute. Eguraldiaren eraginez ekintza bat bertan behera laga behar izan zituzten, eta beste bat Institutuan egin behar izan zuten. Ondorioz, jende gutxiagok parte hartu zuen, baina, aldiz, plazan egindako ekintzetan ume eta nerabe asko ibili dira. Mekako Haur Hezkuntza zikloko ikasleek ere parte hartu zuten txikienen jolasetan, eta egin duten balorazioa oso positiboa izan da. Barikuan, eragile guztiek bat egin zuten Kalegoen



plazan, eta jende askok hartu zuen parte. Aurtengo berrikuntza geocatching jokoa izan da. Oraindik ez dute partaide kopurua zenbatu, baina badakite hainbat familia ibili direla jolasean. Arduradunek jakinarazi dute oraindik jokoa martxan dagoela eta nahi duenak, aplikazioa sakeleko telefonoan instalatuta jokatu dezakeela.

### Altzolako tren geltokiaren aldeko sinadurak bilduko dituzte bihar

Altzolako tren geltokiaren aldeko plataformak sinadurak biltzen dihardu Altolako tren geltokia kendu ez dezaten, eta bihar, Kultur Etxe inguruan jarriko dute mahaia, 11:00etatik aurrera. 3.000 sinaduratik gora batu dituzte dagoeneko, eta

haien helburua 10.000ra iristea da. Legebiltzarrerara eramango dituzte ondoren, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko hasieran proposatutako proiektua berreskuratzeko, hasierako hartan Altolako tren geltokia mantetzen zelako.

### Herri Eskolako jaia ospatu dute



Herri Eskolako komunitateak ikastetxearen jaia ospatu zuen zapatuan. Goizean zehar jolas eta tailer desberdinak egin zituzten, eta eguerdian 500 bat lagun batu ziren bazkaritarako. Guraso, irakasle, ikasle eta

zuzendaritzako kideek elkarlanean antolatu zuten jaia, eta giro onean joan zen eguna. Hezkuntzaren pulikotasuna aldarrikatu zuten, eta Herri Eskolaz eta hezkuntza publikoaz harro sentitzen direla adierazi dute.



# Kantua, dantza, euskara eta komunitatea josi dituzte



**E**lgoibarko Izarrak, Udalak, Musika Eskolak eta Haritz dantza taldeak antolatutako jardunaldi bati esker, kantua, dantza, euskara eta komunitatea josi zituzten eguaztenean musika eskolan. 50 lagunetik gora batu ziren, gehienak dantza mundukoak. Ihitz Iriarten emana bere kantu ibilbideari lotuta egon zen. Umetan hasi zen kantuan eta kantuan darrai oraindik. Kantuak Zuberoan duen garrantzia azpimarratu zuen, eta kantuari esker Euskal Herria eta beste lurralde batzuk ezagutzeko aukera izan zuela azaldu zuen. Segidan, musika eskolako Gaztenahia

koruko kideek bi abesti kantatu zituzten, Silvia Hernandezek pianoan lagunduta. Duguna dantza taldeko Aritz Lusarretak, bestalde, dantzaren mundua, komunitatea eta euskara lotu zituen. Dantzak kultur gintzaren eta euskalgintzaren mesedetan egiten duena eta egin dezakeena nabarmendu zituen, eta horren gaineko hainbat adibide eta esperientzien berri eman zuen. Erdigunean gozamina dagoela ere aipatu zuen. Antolatzaileen arabera, ekimen oso interesgarria izan zen, eta han esandakoak kontuak hartzeko modukoak direla nabarmendu dute.

## Ipuinkontalari saioa lotu dute Mendaron azaroaren 2rako

Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira, ipuin kontaketa saioa antolatu du Mendaroko Udal Liburutegiak azaroaren 2rako. Alberto Bargas ipuin kontalaria etorriko da egun horretan eta *Liburua, horixe altxorra* izeneko saioa emango du. 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago ipuin kontaketa saioa eta udal liburutegian izango da, 17:45ean hasita.

## Lagun Taldeak jarriko du txosna bihar, hileko azken zapatuko ferian

Udalak eta Debemenek antolatuta, hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar. Elgoibarko baserrietako produktuak egongo dira salgai, eta Araldeko kideek ere salduko dituzte euren lanak. 11:00etan txosna zabalduko dute Lagun Taldea txirrindulari taldekoek, eta bertako harategietako produktuekin egindako pintxoak salduko dituzte. Eguerdian ganadu feria egingo da.

## Aurten 81 etxetan jarriko ditu ke detektagailuak Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak ke detektagailuak jarri ditu 80 urtez gorakoak bakarrik bizi diren etxeetan, sute arriskua gutxitzeko asmoz. Aurten 81 etxetan jarri dituzte, eta dagoeneko 324 etxeri eman die zerbitzua. Detektagailua jartzeaz gain, larrialdi egoeren aurrean erabili behar den ebakuazio sistemaren eskema ere egiten dute. Plan honetan parte hartu nahi dutenek baimena eman behar dute.

Udalak gonbidapen gutunak bidaliko dizkie zerbitzu hau jaso dezaketen 80 urtetik gorako pertsoneri, eta behar bezala identifikatutako talde tekniko batek jarriko ditu detektagailuak horretarako baimena ematen duten etxeetan. Informazio gehiagorako, 667 652 110 telefonora deitu daiteke.



## “Egiten dudan musikari erantzuten dio diskoaren ‘Harri, herri, har’ izenburuak”

### IBAN URIZAR 'AMORANTE'

Musikaria

✍️ Ainara Argoitia / 🎙️ Jon Garate

'Harri, herri, har' diskoa plazaratu du Iban Urizar 'Amorante'-k (Elgoibar, 1975), Forbidden Colours diskoetxearekin. 'Kale erdian' singlea argitaratu eta berehala aurkeztu zuen diskoa Bilboko Kafe Antzokiko Kutxa Beltza aretoan, urriaren 10ean. Gerora, 'Habanera' bideoklipa ere eman du argitara Arriguri Filmaken eskutik, iruditeria eta estetika zaindu batekin.

**Belarri kontuak dira gurean azkenaldian. 'Belarriko kilkerra' liburua eman du argitara Uxue Alberdik, eta belarritik atera nahian ari den harra dakar zure azken lanak azalean. Zer biltzen du irudi horrek? Zer doinu eta melodia dakar kanpora harrak?**

Angloek erabiltzen duten *earworm* izeneko kontzeptuari egiten dio erreferentzia belarriko harraren irudiak. Abesti bat barrura sartu eta atera ezinda dabiltzanean erabiltzen dute kontzeptu hori. Niri askotan pasatzen zait hori, nola gorroto ditudan melodia batzuekin, hala neure kantuekin. Izenburuko har horri egiten dio erreferentzia azaleko irudiak, baina izenburuko hitz-jokoan badaude beste bi hitz ere: harri eta herri. Euskal iruditerian harriak herria sinbolizatzen du. Eraikitze materiala da harria, balio dezakeena bidea markatzeko, denboraren gordailu izateko

eta aukera ematen duena zizelkatu eta handik beste zerbait ateratzeko ere, iraungo duenak denboran eta iritsiko dena norabait, edo ez, uretara botatako harriak sortzen duen uhinarekin gertatzen den bezala. Hori da kantua niretzat. Eta herri hitzak erreferentzia egiten dio naizen horri. Herri batekoa naiz, eta ikuspegi horretatik sortu dut nik beti musika.

### **Balio du harriak bidea markatzeko diozu. Zer bide markatu du edo markatu nahi du Amorantek?**

Lengoaia propioaren bilaketa konstantean nabil ni, baina bila ari naizela ere bidean aurrera egiten ari naiz. Batzuetan gelditzen naiz bazterrean eta egoten naiz denbora gehiagoz begira, eta beste batzuetan, ibiliak berak eramaten nau nahi duen lekura. Gaur egun bide bat topatzeko Google mapsen begiratzen dugu eta horrek berak zaildu egiten digu bidetik aldentzea eta senak botatzen dizkigun seinaleei kasu egitea, baina ni saiatzen naiz horretan. Ez dakit nire ibilbidearen metaforatzat balio duen izenburuak, baina egiten dudan musikari erantzuten dio. Edo gutxienez, gustatzen zait pentsatzea hala dela.

### **Kaxa handi batean kabitu daitekeen beste dago diskoan, baina oraingo hau, beharbada, elektronikoagoa da?**

Bai, trajea aldatu dut. Traje zaharrak gustatzen zaizkit hitz berriekin, baina garai baten kronika egin gabe, eta gustatzen zait baita ere antzinako hitzak traje berriagoekin ematea, kasu honetan elektronika gehiagorekin. Motxila musikalean daramadanetik sortzen dut, eta nire motxila gero eta beteago dago hango eta hemengo musikaz, askotariko estiloiez. Denon antzera ni ere aldatu naiz, baina gauza bati eusten diot: zuzenekoetarako sortzen dut eta horretarako behar dudan tresneria erabiltzen dut. Aurrekoarekin alderatuta, estetikoki elektronikoagoa da oraingo hau, bai, sintetizadoreak-eta sartu ditugulako, baina gero baditu oso akustikoak diren elementuak. Nolanahi ere, muinean jarraitzen du herri musika izaten egiten dudanak. Herri musika, zentzu zabal batean hartuta. Herri musika egiten dut, herri batekoa naizelako; ni ez noa mentalitate urbanita bat hartzera leku jakin batera iristeko; ez. Tronpetista moduan hogeita hamar urte daramatzat Udal Musika Bandan jotzen. Jo dut txaranga, jo dut musika klasikoa, musika

esperimentalak, herri musika... Horren guztiaren marka daramat, eta Amorantek, bakarrik oholtzaratzeko aukera ematen didan unetik, hori dena ateratzeko aukera ematen dit.

### **Esana duzu ez zaizula interesatzen bere horretan eramatea diskoa zuzenekora. Erraza ere ez dirudi.**

Estudioan grabatzeak ematen dizkigu beste aukera batzuk, eta nire kasuan, urte guzti hauetan egin dudanak ahalbidetu dit jende on askorekin lan egitea. Eta disko honetarako ere estimatzen dudan jendearengana jo dut. Ni neu egitera iristen ez naizen horretara iristeko eskatu diet laguntza. Bizitzan bezala da hemen ere. Harkaitz Canoren hitzak dira *Erreka* kantukoak eta Idoia Hernandez *Hatxeren* pianoa eta Xabier Xeberioren hariak ere baditu; Odei Barrosoren rapa dago *Ez dira kantuan*; Amaia Mirandaren gitarra dago diskoko azken kantuan, Los Sara Fontanen elektronika *Kale erdian* kantuan... Jende askoren ekarpenarekin jantzi dut diskoa, baina lagun horiek ez dira etorriko nire boloetara. Ni lokalera entsegatzera joaten naizenean zuzenekoari begira hasten naiz lanean, eta kantuen muinari erreparatzen diot; Eta hasten naiz lanean, hitzetatik. Hitzak sortu edo inguratzen ditut, eta haietzako jantzia sortzen dut gero, melodia [Diskoan, bereak dira hiru ez beste letra guztiak. Odei Barrosok eta Harkaitz Canok idatzi dizkiote beste bi eta Bilintxi hartutakoa da hirugarrena]. Erosoago aritzen naiz horrela. Nire teoria da melodia sortzen denean lehenengo, fonetika angloa erabiltzen dela eta horrek eramaten gaituela melodia jakin batzuk egitera. Konbentziturata nago artista askoren sortze prozesua hori dela. Letretatik abiatzen direnek sortzen dituzten melodiak beste modu batekoak dira. Harkaitz Canok esaten zuen ingelesez *All you need is love* dena euskaraz *behar duzun guztia maitasuna da* dela, eta haiek bost silabatan esan duten hori esateko guk hamabi behar ditugula. Melodia aurretik sortzen duenak zailtasunak izango ditu euskarazko berbak kabiduarazteko.

### **'Berria' egunkarirako Gorka Erostarbek egindako elkarrizketan diozu: "Ezusteak hartzea gustatzen zait eta saiatzen naiz neu ere halakoak sortzen". Zerekin harritu nahi duzu zure burua?**

Bai, eta ez zait musikan bakarrik gertatzen hori. Ibili garen lekuetatik ibiltzeak beti ematen

digu segurtasun halako bat, baina niri gertatzen zait azkenerako aspertu egiten nauela segurtasun horrek. Gehien konbentzitzen nauten musikariak arriskuak hartzen dituztenak dira. Musikari edo konposatzaile batek beti hartzen ditu erabakiak kantu bat sortzean eta ni beti ibiltzen naiz 'zergatik egin du hau hemen?' galdezka neure buruari. Harritzen nauten musikariek konbentzitzen naute, eta berdin zait den melodiagatik, konposizioagatik, kantaeragatik edo beste edozergatik, eta den disko batean edo zuzenekoan; beste modu batera esanda, niri egitea kostatuko litzaidakeen hori egiteagatik miresten ditut miresten ditudan asko. Ezustekoak erakartzen nau bai entzule gisa, bai eta musikari gisa ere. Amoranterekin esan izan didate zuzenekoak beti direla sorpresa bat, beharbada ikusten nautelako oholtzan pertsona bakarra tramankulu ezberdinak jotzen, baina nik ez nuke nahi egiten dudan hori zirkoa bihurtzerik; Nik ez nuke nahi jendea txunditzerik zazpi tresna batera jotzen ditudalako; nik kantuaren muina den horrekin txunditu nahi dut jendea. Iruditzen zait oso garrantzitsua dela dauzkagun mugen kontzientzia hartzea eta haiekin jolastea, iristeko iritsiko ez ginatekeen lekuetara.

### **Zuzenekoak dira zureak. Inguruan zer daukazu lotuta?**

Asteazkenean Victoria Eugenia klubean joko dut [iragan denean], eta urtea amaitu aurretik Azeitian eta Ondarrun izango naizela badakit. Kanporako ere ari zaizkit kontzertuak lotzen, baina ezin dizut gauza handirik zehaztu. Asko jotzen dut kanpoan, hemen bertan baino gehiago esango nuke, eta paradoxikoa egiten zait hori, kontuan izanda euskara hutsean direla nire kantu guztiak. Horra froga garbia euskara muga ez dela erakusteko!. Datorren urtera begira *Artistas en ruta* estatu mailako programan ere sartu naiz [zuzeneko musika eta talentu berriak publikoari hurbiltzeko programa da, Etxepare Euskal Institutuak babestutakoa]. Programa horren baitan estatu osoko kazetari, areto-programatzaile eta kultura kudeatzaileek osatutako epaimahai batek estilo eta jatorri ezberdinetako artistak aukeratzen ditu, seihileko batez, gure kasuan urtariletik ekainera, estatu osoan zehar banatutako aretoetan emanaldiak baldintza duinetan egiteko. 2024ko lehen seihilekorako lau euskal talde edo proiektu

*"Nik ez nuke nahi egiten dudan hori zirkoa bihurtzerik; nik ez nuke nahi jendea txunditzerik zazpi tresna batera jotzen ditudalako; nik kantuaren muina den horrekin txunditu nahi dut jendea"*

aukeratu dituzte: Hofe x 4:40, Medina Gris, Maren eta ni neu.

### **Zerbait gehiago esan nahiko zenuke?**

Garai baten zuten garrantzia eta oihartzuna galdu dutela diskoek. Kontsumoa aldatu egin da, eta ez dira diskoak saltzen; oso azkar erretzen dira, eta ez dira, inondik inora, norbere lana publikoari zabaltzeko biderik eraginkorrena, baina industriak behartzen gaitu ateratzera, hor gaudela esateko. Irudiak dauka, gaur egun, garrantzia musikan ere; gehiegizkoa esango nuke. Musikak entzumena kitzikatu beharko luke, baina gero eta gehiago eskatzen zaigu begitik sartzea eta nik ere ikus-entzunezkoak proiektatuko ditut zuzenekoetan. Horretarako saiatuko naiz Itziar Garaluzekin joaten boloetara. Probatu genuen Katalunian, probatu dugu Bilboko eta Baionako aurkezpenetan, eta oso pozik gaude emaitzarekin.

### **Irudia, estetika... 'Habana' bideoklipa ez da oharkabean pasatzekoa, ez.**

Ez, ez da. Oso pozik nago neu ere emaitzarekin. Meritua Arriguri Filmakena da hor. Nik kantua egin nuen eta Arriguriok ezin hobeto bildu dute Amoranteren iruditeria eta estetika bideokliperako. Eta horri gehitu nahi nioke Jon Garate elgoibartarrak egin dizkidan argazki zoragarriak. Gaur egun musikarioi irudia saltzea eskatzen zaigu, horrek saltzen duelako gure musika. Tendentzien, industriaren... esklabo egiten gaitu horrek, baina hori da daukaguna. Nik lagunak dauzkat oso onak direnak, oso musika ona egiten dutenak, baina bolorik apenas dutenak. Zergatik? Batetik, industria kapritxosoa delako, eta bestetik, irudiak saltzen duelako. Injustua da, baina hori bizi dugu.

## || 'Kanela, kalabaza, gatxak': Gaba Beltza lantzeko ipuina


**D**uela urtebete sortu zuen Naiara Martinek *Kanela, kalabaza, gatxak*, izenburuko ipuina, Gaba Beltza testuinguruan kokatzeko eta umeekin heriotzaren gaia lantzeko. Bizipen pertsonalean oinarritutako istorioa da ipuinekoa. Aitona hil zitzaionean alabarekin modu berezian landu zuten gaia eta Gaba Beltza lantzeko istorio bila hasi zenean oroimen hori etorri zitzaion gogora Naiara Martini. Egoera hura izan zen ipuinaren abiapuntua. Testua sortu zuen, eta marrazkiak egiteko lana Atxutxiamaiatik ezagutzen zuen Ane San Martin margolariari eskatu zion. Ipuin pertsonala izanik, sentimenduetara iritsi nahi zuen San Martinek bere marrazkiekin, eta horretarako akuarela erabili zuen. Kolore suabeak aukeratu zituen, eta eta irudi "efimeroak" marraztu zituen, istorioari "osotasuna" emateko. Ipuina euskarri digitalean argitaratu zuten iazko ediziorako, eta bideoa ikastetxeetara zabaldu zuten.

Aurten beste pauso bat eman dute, eta ipuina paperean argitaratu dute. Testua apur bat egokitu, eta ilustrazioak osatu dituzte horretarako. Estreinako liburua izan da bientzat, eta gustura geratu dira emaitzarekin. Mila ale kaleratu dituzte, eta asmoa hezkuntzako eragileen artean zabaltzea da: ikastetxeetara, ludoteka eta gaztelekura, beste euskara elkarte batzuetara...

### Gau beltza

Gau Beltza urriaren 31n ospatzen da Euskal Herrian. Arimen Gaua ere esaten zaio, eta hildakoak oroitzeko eguna izan ohi da. Egun horren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Elgoibarko Hezkuntza Mahaiak, Atabal elkarte, Gotzon Garate udal liburutegia eta Egur arte tailerrarekin batera. Iaz egin zuten moduan, Ibilbide Beltza egingo dute urriaren 31n. Kalegoen plazatik Maalaraino joango dira ilunpean, horretarako propio prestatutako mozorroekin. 19:15ean hasiko dute kalejira, eta aurretik prestatuko dituzte mozorroak, Kalegoen plazan bertan.

Mendaron ere ospatuko dute arimen gaua, Arno Guraso elkarteak eta Udalak antolatuta.



### ELGOIBAR

#### Azaroaren 1era arte

Ihes gela.

Informazio gehiago: [labur.eus/ihesgela](http://labur.eus/ihesgela)

#### Urriak 30, astelehena

**17:00** Beldurrezko ipuinak, LH1ekoentzat.

**17:30** Beldurrezko ipuinak, LH2 eta LH3koentzat.

Udal Liburutegian.

#### Urriak 31, martitzena

**18:00** Mozorro tailerra. Kalegoen plazan.

**19:15** Ibilaldi beltza, Kalegoen plazatik, Maalara.

### MENDARO

#### Urriak 31

**18:00** Eskulanak, photocall, harri beldurgarrien bilaketa... Herriko Enparantzan.

# KIROLA SASOIAN

✍ Ainhoa Andonegi / 📍 Asier Orbea

Online erosketak gora eta gora egiten ari diren garaioan, merkaturaren itsaso zabal horretan igeri egitea gero eta zailagoa da, baina badira oraindik olatua hartzen asmatu duten denda txikiak. Iriondo Kirolak dendak, esate baterako, 40 urte bete ditu aurten, eta aurreragokoa da Astigarraga. Kirol dendak, beraz, sasoi onean daude Elgoibarren.

## IRIONDO KIROLAK



*Miriam, Nora, Mari Carmen eta Josu Iriondo, Lucia Arrietarekin.*

**1**983. urtean zabaldu zituen atea Iriondo Kirolak dendak, eta 40 urte bete ditu. Egungo bizimodua eta erosketa-ohiturak kontuan hartuta, pentsatzekoa da ez dutela bizirauten erraza herriko denda txikiak, baina Iriondo Kirolak denda, behintzat, osasuntsu dago. Gertuko tratua, konfiantza eta kalitatezko produktuen katalogoa dira negozioaren hiru zutabe nagusiak. Lucia Arrieta amak, eta haren seme-alaba Mari Carmen, Miriam eta Josu Iriondok azaldu dituzte 40 urteko ibilbidearen nondik norakoak.

Jesus Iriondo eta Lucia Arrieta senar-emazteek zabaldu zuten Iriondo Kirolak denda duela 40 urte, gaur dagoen lokal berean. Familiarena zuten lokala, eta hasieran, supermerkatua izan zuten bertan. "Gerra ostean zabaldu zuten gure amama Luciak janari denda hura", gogoratu dute Josuk eta Miriamek. Industrializazio garaia zen, eta jende

asko etorri zen garai hartan Elgoibarrera lanera. Lucia Arrietak ondo gogoan dauzka amarenera erosketak egitera joaten ziren langile haietako asko. "Iritsi berriak ziren, eta justuko diruarekin bizi ziren. Gure amak, baina, ez zuen inor gosez lagatzen; denei ematen zien behar zutena, eta dirua eskuratzen zutenean ordaintzen zioten bezeroek. Izugarri maite zuten denek gure ama".

Supermerkatua itxi eta altzari denda zabaldu zuten gero lokal hartan, Muebles Arrieta izenarekin. "Gaur egun oraindik herritar batek baino gehiagok esaten digu gure dendan erositako altzariak dituztela etxean! Eta ilusioa egiten digu, egia esan", nabarmendu du Josuk. Denda soila baino gehiago izan zen Muebles Arrieta Elgoibarren, garai hartan: kanpotik bizi hobe baten bila Elgoibarrera etorritako askok etxeo helbide zehatzik ere ez zuten izaten orduan, eta

haiantzako gutunak ere dendara iristen zitzaizkien. Baina itxi zuten hura, 1981. urte inguruan.

1983an beste buelta bat eman zioten negozioari, eta kirol denda zabaldu zuten hasierako ekintzaile haien ondorengoek, Jesus Iriondo eta Lucia Arrieta senar-emazteek. Aita zutenaren ilusioa burdindegi bat zabaltzea zela oroitu du Josuk, baina kale berean lagun min batek burdindegi bat zuenez, baztertu zuen ideia hura, lagunari konpetentzia ez egitearren. Gurasoei eskatu zieten aholkua gero, eta haiak ohartarazi zieten seme-alaben beharrei erreparatzeko eta behar haien araberako erabakia hartzeko. Halaxe, kirol denda zabaltzea erabaki zuten, Iriondo Kirolak izenarekin. 1983ko ekainean zabaldu zuten dendako atea [Garate eta Astigarraga ere baziren ordurako. Gerora, Muxi Kirolak denda ere zabaldu zuten, baina ez zuen asko iraun, eta kaleko arropan espezializatu zen Garate]. "Izenaren ondoan uztai olinpikoak jarri genituen logotipo modura, eta gaur egun oraindik irudi bera mantentzen dugu. Zaharkituta dagoela pentsatu izan dugu batzuetan, baina komertzial batek esan zigun historikoa zela eta horregatik mantentzen dugu. Negozioaren marka da, eta izena eta izana irudikatzen ditu irudiak".

Ez zuen hasiera erraza izan dendak, ekainean zabaldu eta urte bereko abuztuan urak hartu zuelako Elgoibar, eta baita, jakina, denda ere. Nafarroan oporretan zeudela jaso zuten ur handien berri. Herritik iritsi zitzairen informazioaren arabera, dendak ez zuen aparteko kalterik jasan, baina larritu zen telebistako albistegietan ikusi eta entzun zuenarekin Josu. Urak hartuta ageri zen Elgoibar irudietan eta berehala ohartu zen herrian gertatzen ari zenak beste tamaina bat zuela. "Ufalen berri ematen ari ziren albistegietan, eta halako batean Elgoibarko irudi batzuk eman zituzten. Gure denda urpean ikusi nuenean gurasoei esan nien gezurra esan zigutela, dendan derrigor izan behar zirela kalte handiak", oroitu du. Hala, itzuli ziren herrira, eta sekulako hondamendia topatu zuten dendan. Kolpe itzela izan behar zuen hark, denda zabaldu berritan. "Dena galdu genuen". Baina hondamendian ere izaten da gauza onik, herritarrek elkarri emandako babes eta laguntasuna kasurako: "Jende pila batek lagundu zigun denda garbitzen, eta asko etorri zitzaizkigun materiala beren etxeetan garbituko zutela esanez ere. Izugarria izan zen, baina han zegoen lokatz guzti harekin ezin izan genuen askorik berreskuratu". Berrito zerotik

## 1983an zabaldu zuten Iriondo kirolak, baina urte bereko abuztuan lehenengo eta 88an gero, hutsetik hasi behar izan zuten berrito, uholdeek eragindako kalteengatik

hastea esan nahi zuen horrek. Eta ekin zioten hutsetik atzera ere, inguruko laguntzarekin.

Aitortu dute kirol kontuez ez zekitela gauza handirik, baina ilusioa bazutela eta hori beti izaten dela lagun on. Familiako askok lagundu zieten, eta etxeko alaba Miriam ere dendan jarri zen lanean, Londresetik itzuli berritan. Ingelesa ikastera joana zen Miriam Londresera, eta horregatik falta izan zen Elgoibarren denda zabaldu zutenean. Londrestik bueltan hainbat ikasketa egin zituen Miriamek Bilbon eta Donostian, eta tarte libreetan, dendan laguntzen hasi zen. Halaxe hasi, eta gaur arte! Baina dena zen gutxi. Izan ere, 83ko hondamendia artean buruan zutela, iritsi zitzairen bigarren kolpea, 1988ko uztailean. Eguzkitsu argitu bazen ere eguna uztailean 19 hartan, golpera dena ilundu, euria hasi, eta ohartzeko, urak gainezka hasi ziren Elgoibarren. "1,70 metro ingururaino iritsi zen ura dendan, eta dena galdu genuen. 1983ko uholdeekin alderatuta, baina, 88koan hildakoak ere izan ziren herrian [bederatzi lagun hil ziren], eta hura ikusita, gurea ezin esan horrenbestekoa izan zenik, kalteak handiak izan arren, kalte materialak baino ez genituelako izan guk dendan. Izugarria zen uholdeek egin ziguten mina, baina beste batzuek sufritu behar izan zutena kontuan hartuta, zortekoak izan ginen gu", esan du Josuk.

Iriondo Kirolak familia-denda da. Denda ireki eta urte gutxira hasi zen beraiekin lanean Mari Rodriguez, eta gaur, etxeko dute denek. Herrian ere, Mari Iriondo izenez ezagutzen du jende askok. "Enkarguren bat egiten dudanean askotan esaten didate: Mari Iriondo, ezta?". 23 urte zituela hasi zen Mari dendan lanean. Lau dendan zebilen garai hartan Mari lanean, eta Lucia Arrietak jo zuen begiz: "Neska horrek oso ondo garbitzen ditu kristalak, eta hori gure dendarako aproposa izango da" esan zien Luciak seme-alabei. Ordezkapen bat egiten ari zen Mari orduan, eta bukatu zuenean udako denboraldiarekin laguntzeko eskatu zioten Iriondo Kirolak dendakoek. Eta ordezkapen

hura gaur egunera arte luzatu da. Eta hala osatu dute 40 urteko historia. Sekretua? Lana. "Hasiera hartan gure gurasoek ez zekiten kirol kontuez gauza askorik, baina beti produktu ona ekartzeko ahalegina egin izan dute, eta halaxe jarraitzen dugu. Bezeroei arreta pertsonalizatua

eskaintzen diegu, arropak etxera eramaten uzten dugu probatzeko... konfiantza eta gertutasuna eskaintzen diegu eta jendeak hori asko eskertzen du. Hori da merkaturian lehiatzeko daukagun armarik onena", Iriondoren handitasuna, txikitasunean dago, beraz.

## ASTIGARRAGA



*Ainhoa Garitagoitia, Natasa Vucinic, Adelaida eta Juan Luis Astigarraga neba-arrebak eta Denis Saiz.*

Astigarraga denda Rikardo Astigarragak zabaldu zuen orain dela 75-80 bat urte. Negozio familiarra izan da beti, eta gaur egun Juan Luis eta Adelaida Astigarraga geratzen dira, baina ibilbidea haien aitona Rikardok hasi zuen. Errosario kalean erosi zuen lokala, gaur egun dagoen leku berean, eta goiko pisua ere erosi zuen. Beraz, behean lan egiten zuen eta goian bizi ziren astigarragatarrak. Janari denda moduan hasi zen Astigarraga, baina Rikardok entxufeak ere prestatzen zituen herriko enpresentzako. Urteak aurrera joan ahala, dendan aldaketak egin zituzten, eta 1970. urte inguruan hiru arlotan banatu zuten lokala: loradenda, kirol denda eta larrugintza zerbitzua. "Ordurako nire gurasoak eta osaba-izebak hasita zeuden dendan lanean", esan du Juan Luisek. Gogoratu du edari banatzen ere ibiltzen zirela, osaba batez ere, eta urteen poderioz bakoitzak bere bidea hartu zuela: "Osaba Juan Jose geratu zen edariak banatzen eta gure aita Luis Fernandok hartu zuen denda".

Denda txikietan etengabe asmatzen egon beharra dago aurrera egingo bada, eta Astigarragak ere aldaketa asko izan ditu gaur egun dena izatera iristeko: "Lokal nagusia kirolari eskaini genion. Larrugintza kendu eta loradenda beste lokal batean jarri genuen". Gaur egun Mekanosa dagoen lokalean zabaldu zuten loradenda, eta Adelaidak hartu zuen haren ardura. Lokal handia zenez, bizikletak han saltzen zituzten. Urteak pasata, Jausoroko errotonda pareko lokalera lekualdatu zuten loradenda, eta gerora outlet estiloko denda bihurtu zuten hura.

Eboluzio horren barruan, urte onak eta zailak ezagutu dituzte, eta Juan Luisek ere gogoan ditu uholdeak. "88an metro eta erdiko altura hartu zuen urak. Ahal genuen guztia igo genuen gora, baina material asko hondatu zitzaigun". Leihotik ikusi zuten Errosario kalea erreka bilakatuta, eta halako batean, beraien autoa ikusi zuten pasatzen: "Santa Klaran geneukan aparkatuta.



Txankakuako zubian zehar eraman zuen urak, eta plazan errebuelta hartu zuen Errosario kalerantz. Gure paretik pasatu zen, Kultur Etxe ingururaino”.

Gaur egun Astigarraga kirol denda da. Bi lokal dituzte Errosario kalean, bata bestearen parean. Batean, kirol modalitate desberdinetako materiala saltzen dute, eta bestean, zapatilak bakarrik: “Zapatilen kate bat da, eta hor sartu ginen. Bergaran ere badaukagu estilo horretako denda bat”.

Beharrak bultzatuta egin dituzte aldaketak, merkatuaren joera berriak eraman ditu etengabe negozioa berrasmatzera. Merkatal zentro handiak izan ziren lehenengo denda txikien etsaiak, eta gaur egun online bidezko salmentari ere egin behar diote aurre. Juan Luisek beste oztopo bat ere aipatu du; hornitzaileak: “Marka askok gutxieneko kopuru bateko inbertsioa eskatzen dute, bestela ez dizute beraien produktua saltzen. Nike, Adidas eta horrelako marken baldintzak betetzea gero eta zailagoa da”. Hori gaidintzeko Gys Sport taldearen barruan sartu ziren orain urte batzuk. Euskal Herriko 40 denda daude hor barruan, eta horri esker, denen artean erosi ahal izaten dute marka handi horien materiala.

Astigarraga mendiko materialean espezializatu da azken urteetan, eta jende asko material horren bila etortzen da. Elgoibartarrak ez ezik, inguruko herrietatik ere etortzen zaizkie bezeroak. “Mendaro, Deba, Mutriku, Markina... eta orain, bide gorriari esker, Eibarko bezero gehiago ere baditugu”.

Enpresagintza ikasketak bukatu eta dendaren ardura hartu zuen Juan Luisek. “Etxeko negozioa izanda, horretan hasi ginen”. Lehen horrela izaten zen, baina gaur egun egoera asko aldatu da, eta ez du etorkizuna hain argi ikusten. “Merkataritza mundua gogorra da. Negozioa martxan daukagu, baina mundu honetan bizirautea gero eta zailagoa da. Nik bi alaba ditut eta biei esan diet ahal badute beste lanbideren bat topatzeko”. Erosketa ohiturak aldatu egin dira, gazteek gero eta gehiago erosten dute Internetez, eta Juan Luisek uste du ohitura hori gero eta zabalduagoa izango dela. Horren aurrean, denda txiki asko itxi egingo diren ustea dauka, eta ikusten ditu horren ondorioak: “Oinetakoentzako lokarriak beharko ditu norbaitek, edo igerilekurako txapela, eta herrian ez da egongo horrelako ezer erosteko aukerarik. Orduan gogoratuko dira denda txikiak”.

Denda txikien balorea gertutasunean dagoela

## Rikardo Astigarragak zabaldu zuen Astigarraga kirol denda, duela 75-80 bat urte, eta bere biloba Juan Luis eta Adelaidak eusten diote familia negozioari

dio, sinistuta. “Konfiantza ematen diogu bezeroari”. Aholkuak ematen dituzte denda txikietakoe, arropak etxera eramateko eta probatzeko aukera eskaintzen diete bezeroei eta askok eskertzen dute tratu hori. Beste batzuk, ordea, probatzera bakarrik joaten zaizkie dendara, eta gero saiatzzen dira produktu hori bera Internetez erosten: “Askok uste dute merkeago aurkituko dutela Internetez, baina guk erabiltzen ditugun merketan ez da alderik egoten apenas”. Horren aurrean, batzuk hasi dira probatzeagatik ere gutxieneko kopuru bat kobratzen: “Alemanian, esaterako, eskiatzeko botak edo beste material batzuk probatzeagatik kobratu egiten dute. Erosten duenari, deskontatu egiten diote gero probatzearen kostua, baina erosten ez bada, gutxienez hori kobratu egiten diote”. Ez luke berak horretara iritsi nahi, baina beraien lana balioan jartzeko modu bat dela uste du: “Gure denbora eta jakintza eskaintzen diegu bezeroei, eta horrek ere kostu bat daukala ulertu behar dute. Konponketaren bat egiteko, iturginari edo elektrizistari deitzen diogunean badakigu gutxienez irteera kobratuko digula. Hori onartuta daukagu, baina dendariaren denbora ez dugu berdin baloratzen; dendarien lana ez dugu kontuan hartzen”.

Eta, dendak denbora asko eskatzen du, aurrez aurreko salmentaz gain, dendaosteko lan asko egin behar izaten delako. “Enpresa handietan bakoitzak bere lana dauka, baina hemen dena geuk egin behar dugu: materiala erosi, kontabilitatea, salmenta... Denda ordutegia zabala da gainera, eta aparteko lan horiek orduz kanpo egin behar izaten dira. Gauza onak ere baditu honek, azken batean zu zara zure nagusia eta horrek abantaila asko dauka, baina gazteek gaur egun ez dute horrelako lanik nahi”.

Momentuz sasoian dago denda, eta erretiroa hartu arte iraungo dutela espero du. “Egunetik egunera bizi behar dugu hau, baina ni eta arreba hemen jubilatzea espero dut”.

## 'Belarriko kilkerra' liburua aurkeztu du Uxue Alberdik, Pitzintxun, lagunez inguratuta

Pitzintxun aurkeztu zuen *Belarriko kilkerra* bere azken lana Uxue Alberdik joan zen astean, lagunez inguratuta. Miren Amuriza idazle eta bertsolariak egin zituen aurkezpen-lanak, eta libururako *Astoaren arrantza*, *Suma y sigue eta kitto*, *Minaren gela* eta *Abarka* istorioen kontalari izan duen Angel Ugarteburuk ere parte hartu zuen aurkezpenean. Era berean, beste hiru kontalariren grabazioak ere eman zituzten, entzuleen gozamenerako: Nerea Ibarzabal, Andres Alberdi eta Miren Amurizarenak. *Belarriko kilkerra* liburuan ahoz kontatu eta belarritz jasotako testuak bildu ditu Alberdik, Begoña Durrutyren ilustrazioekin jantzita. Inguruan dituen kontalari onek kontatutako istorioak dira asko, Ahotsak-en webgunean arrantzatutakoak beste zenbait eta badu tartean berea duen bat ere, aitonari hartutakoa: *Arma*. Mende bete biltzen duten istoriak daude *Belarriko kilkerra* liburuan, eta ahozkotasuna, transmisioa eta memoria dira liburuaren hiru zutabe nagusiak. Liburuaren nondik norakoak azaldu zituen Alberdik aurkezpenean, eta esan zuen "liburu akzidental bat" dela *Belarriko kilkerra*. Alberdik



kontatu zuen fikziozko ipuin batekin "trabatuta, egoskortuta eta frustratuta" zegoela, aitik itxialdian bidali zizkien ahozko mezuekin gogoratu zela eta hasi zela haietatik gustukuen zituenak idatziz ematen, ahoz zeukaten grazia bera lortu asmoz. Eta ariketa hura jolasa bihurtu zitzaion. Halaxe, inguruan zituen kontalari onak tentatu zituen eta hasi zen kilker haiek kontatutako istorioak biltzen. Horietako 60 ekarri ditu liburura. Bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)

### Dantzaldia egin zuten zapatuan, Haritz dantza taldearen 50. urteurrenaren barruan



Haritz dantza taldeak 50 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko urte osorako egitaraua prestatu dute. Zapatuan, lagunez inguratuta egin zuten dantza emanaldia. Iruñeko Duguna eta Eibarko Kezka dantza taldeak gonbidatu

zituzten, eta Haritzeko dantzariekin batera aritu ziren dantzan. Maalatik Kalegoen plazara joan ziren kalejiran, eta gero, plazan bertan egin zuten dantzaldia. Eguraldiak lagun, Kalegoen plaza jendez beteta egon zen. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)

## Yllanaren 'Greenpiss' antzekia gaur, Herriko Antzokian



Yllana antzerki taldearen *Greenpiss* antzezlanak ikusteko aukera izango dute gaur iluntzean Herriko Antzokira gerturatzeko direnak. Birziklatutako elementuekin lan egiten du taldeak, eta ekologia gaiak izaten dira beraien antzezlanetan ardatz nagusia. Oraingo honetan ere ekologiaren satira bat sortu dute, eta gure espeziearen biziraupenari buruzko gogoeta egingo dute, umoretik. 19:00etan hasiko da emanaldia.

## Puro Relajok kontzertua emango du bihar, Maalako parkean



Kintada Eguna antolatu du Udalak biharko, eta egun hori adin guztietako elgoibartarren jaia izatea nahi du. 2018an egin zuten estreinakoz kinto ospakizunen estreinako eguna, eta 23 taldek parte hartu zuten, mila lagun inguruk. Pandemiaren eraginez bertan behera geratu da azken urteetan, eta biharkoa hirugarren edizioa izango da. Kinto bakoitzak bere bazkaria antolatu behar du, baina eguna borobiltzeko Puro Relajo mariatxi taldearen kontzertua antolatu dute. Maalako parkean joko du talde nafarrak, 22:30etik aurrera.

## Negar zein barre egin dute Izan Inurri elkartearen 'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio solidarioa batu direnak



Izan Inurri elkarteak bularreko minbizidunei laguntzeko proiektu solidarioa sortu du, *Tabuen kutxatik oholtzara* izenekoa, eta joan zen barikuan Elgoibarrera ekarri zuten Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun sailek. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Nerea Ibarzabal bertsolariak aritu ziren oholtzan, Amaia Agirre gaitzartzailearen esanetara, eta Gari Otamendi eta Ixak Arruti musikariek lagunduta. Minbizia bizi izan duten emakumezkoen azalean sartuta, saio hunkigarria osatu zuten, eta ikusleek gozatua hartu zuten.





## ***Andone Ormaetxea Alberdi***

2023ko urriaren 18an hil zen, 100 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure oroimenean bizi zaren artean  
betiko izango zara gure bihotzetan.***

Etxekoak



## ***Pedro Azpiazu Altuna***

2023ko urriaren 19an hil zen,  
101 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak, bai eta  
hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Maitasunez,  
beti gure bihotzetan***

Etxekoak



II. URTEURRENA

## ***Agurtzane Unamunzaga Zorrozua***

2021eko urriaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

***Goizeko ihintzetan, belardi zera.  
Eguzkitan zilar dizdira.***

Maite zaitugu, etxekoak.

## ION LAZKANO

Laboral Kutxako kirol arduraduna

✍️ Aina Argoitia / 🏍️ Laboral Kutxa

Etiket datorkio bizikletarako zaletasuna Ion Lazkano Iriondori (Mendaro, 1988). Anaiaren arrastoari jarraika, txirrindulari izan zen gaztetan eta IVEF ikasketak egin zituen gero. Unibertsitateko praktikak Euskadi Fundazioan egin zituen eta gerotik poliki-poliki joan da bidea egiten txirrindularitza munduan, harik eta duela hiru bat urte Laboral Kutxako proiektuan sartu zen arte. Afizionatuen mailako gizonetzkoen taldearen eta UCIREn Kontinental mailara igo berri zen emakumezkoen taldearen ardura hartu zuen. Bi ardurak uztartzea zaila, baina, eta emakumeekin zentratuta dabil azkenaldian. Laboral Kutxako kirol arduraduna da, eta World Tourrera, gorengo mailara, igotzeko eskaera egina taldeak.

**Harrera egin dizuete Elgoibarko udaletxean. Halakoak ere nahikoa gauza berri dira emakumezkoen kirolean.**

Bai, polita izan da, eta eskerrak eman behar dizkiet horregatik Elgoibarko Udalari eta Elgoibarko Lagun Taldeko arduradun eta txirrindulari gaztetxoei.

**Hiru urte egin dituzue Kontinental mailan eta gauzak asko aldatu dira taldea hartu zenuenetik. Zein izan da aldaketa handiena?**

Emakumezkoen taldea hartu nuenean, taldean ez zegoen profesioalera igotzeko gaur daukagun anbizio hori. Zaletasunez aritzen ziren taldeko guztiak, bakar batentzat ez zen hau bizibide eta esango nuke aukerarik ere ez zutela ikusten kiroltik bizitzeko. Emakumezkoen txirrindularitzak, baina, indar handia hartu du munduan, eta taldeak egindako lanari eta eta Laboral Kutxaren konpromisoari esker iritsi gara gauden lekuraino.

**Ikaragarria da taldeak egin duen bidea, izan duen gorakada. World Tourrera igotzeko lizentzia ere eskatua duzue. Zer aurreikusten duzue?**

World Tourrera igotzeko lizentzia eskatu



*“Gure proiektuak zentzua hartuko du gaur 8-9 urte dituen ume batek Laboral Kutxako mailota janztearekin amets egiten duen egunean”*

dugu, baina UCIREn dauka azken hitza. Zaila daukagu, baina guk sinistuta egin dugu apustua. Hamabost lizentzia daude World Tourren eta hamasei taldek eskatu dugu. Gerta daiteke UCIREn hamaseirak onartzea lizentzia bat gehiago aterata, egin izan duelako aurrez, baina ez da ohikoena. Lizentzia eskuratzeko baldintza asko bete behar izaten dituzte taldeak: azpiegitura-, diru-, administrazio-, organigrama- eta kirol-kontuak, eta azken horrek kastigatzen gaitu

gehien. Azken bi urteetako emaitzak hartzen ditu kontuan UCIk, eta gu gara lizentzia eskatu duten guztien artean puntu gutxien bildu dugunak. Beraz, baldintza berdinetan, guk daukagu zailen.

### **Nola baloratzen duzu UCIn puntu sistema horrek txirrindularitzan duen eragina?**

UCIk erabaki du txirrindularitzan kompetentzia saritzea, eta lehia horrek presioa sortzen du taldeetan, bai ala bai emaitzak eskuratu behar direlako. Lehen ez zegoen puntu sistema hori eta beste era batera funtzionatzen zuen denak, baina gaur egun, bizitzako beste esparru guztietan moduan, lehiakortasuna sustatzen da. World Tourrerako korteia 2.500-2.700 puntutan dago gaur egun. Esan nahi dut gutxien dituen taldeak puntu kopuru hori duela eta guk, aldiz, 1.017.

### **Ez dira nahikoa puntu, bistan da, baina errepara diezaiogun talde honek izan duen gorakadari. Beharbada horrela...**

Bai, hori egia da, eta guk geuk ere hori esan nahi izan diogu UCIn lizentzia eskatuta. 2022an 147 puntu eskuratu genituen, eta aurten, milatik gora. Munduan ez dago beste talde bat guk besteko eboluzioa izan duenik eta bada aintzat hartzekoa. Baina, hori da daukaguna eta kontziente gara: World Tourreko mailan daudenen parera iristeko bikoiztu egin behar ditugu puntuak. Abendu erdialderako jakingo dugu lizentzia hori izango dugun edo ez, baina ez gaitu horrek itsutzen. UCIk ezetza emango baligu ere ez guke gure bide orria aldatuko. Ahaleginduko gara ahal den puntu gehien eskuratzen datozen bi urteetan eta bi urte barru berriro eskatuko dugu lizentzia, bi urtez behin berritzen dituztelako. Egin ditugun fitxaketekin eta abarrekin, mundu mailan oso kontuan hartzeko taldea izango garela sinistuta nago. Litekeena da oraingoan lizentzia ez eskuratzea, baina egin dugun bideak, nik uste, aukera emango digu gonbidapenak eskuratzeko.

### **Nola funtzionatzen du gonbidapenen kontuak?**

Hamabost taldek World Tourreko edozein lasterketa jokatzeko lizentzia izango dute, beste bi taldek automatikoki jasotzen dute karreretako



gonbidapena eta hortik hogeita lau taldera arteko guztiek antolatzaileen gonbidapena behar dute lasterketak jokatzeko. Eta nik uste Word Tourreko lizentzia eskatze hutsak aukerak zabaltzen dizkigula lasterketa onenen antolatzaile direnek gudan erreparatzeko.

### **Batetik dago izan duzuen gorakada eta bestetik daude fitxaketak eta abar. Inor gutxiesteko asmorik gabe, hor daukazue Ane Santesteban esaterako. Ez daukazue ziurtatuta Giroan edo Tourrean egongo zaretenik, baina, hala ere, Santestebanek, Giroan hamargarren eta Tourrean zortzigarren egin duenak, zerbait ikusi dio proiektu honi zuen eskaintza onartzeko.**

Etxean lehiatzea lehenetsi du Anek. Hiru urterako sinatu du eta apustua egin du, proiektu sendoa ikusi duelako. Elitean urte asko daramatzen txirrindularia da Ane, ondo baino hobeto dakiena nola funtzionatzen duen mundu honek eta zeintzuk diren eman behar diren pausoak mailarik gorenean egoteko. Esango nuke Ane oso kontziente dela nora datorren eta zer suposatzen duen proiektu honek. Guretzat izugarria da bera taldean izatea. Taldean hamazazpi txirrindulari ditugu, tartean batzuk oso gazteak, Anerengandik asko ikasi dezaketanak, eta elkarrekin urrats handiak egiteko aukera daukagu. Joane Somarriba ere badaukagu taldean aholkulari. Bere lorpenengatik, sona handiko txirrindularia da munduan Somarriba, eta inork baino hobeto daki emakumezkoen txirrindularitzak izan duen eboluzioa. Guri oso lagungarri izan zaigu txirrindulariak ohartu daitezen zer aukera duten orain.

### **Gauza handia da txirrindularitzan hasi diren**

**neskatilek erreferenteak izatea gorengo mailan, baina harrobiaren kontua ere hor dago,. Txirrindularitzan beste edozein kiroletan baino zailagoa dirudi aspaldian bi ertzen arteko oreka bilatzea. Zer diozu?**

Landu behar den kontua da. Piramidearen puntan egotea garrantzitsua da, txirrindulari gaztetxoek arrazoi bat izan dezaten egunero entrenatzeko, gozamen hutsetik aparte, baina esan gabe doa harrobira baliabideak bideratzea eta tokian tokiko klubek egiten duten lan eskerga aitortzea ezinbestekoa dela. Ordainezina da taldeetan egiten duten lana. Baina esango nuke epe ertainera ikusiko dugula maila gorengoan talde bat izateak dakartzan onurak. 2029ra arteko babesletza lortu dugu Laboral Kutxarekin eta hori izugarria da, txirrindularitzan ez delako batere

erraza izaten pare bat urte baino gehiagorako babesla lortzea. Gure proiektu honek zentzua hartuko du gaur 8-9 urte dituen ume batek Laboral Kutxako mailota janztearekin amets egiten duen egunean. Lehen, profesional izan nahi zuenak ez zeukan Italiara alde egin beste aukerarik, Joane Somarribak eta Ane Santestebanek egin zuten bezala, baina orain amets egin dezakete horrekin etxeko talde batean egonda.

**Lizentzia lortzea da bat, baina denboraldirako zer beste helburu daukazu buruan?**

Itzulian paper ona egitea. World Tourreko lasterketa da, ziurtatuta daukagu irteeran egongo garela eta nahi genuke lan ona egitea. Bigarren helburu nagusia Tourrean parte hartu ahal izatea litzateke.

## LABORAL KUTXAKO TXIRRINDULARIEI HARRERA EGIN DIETE



Denboraldi berrirako prestaketa lanak Elgoibarren hasi ditu Laboral Kutxak, Euskadi Fundazioaren emakumezkoen txirrindulari taldeak eta martitzenean harrera ofiziala egin zien Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Lagun Taldea txirrindularitza eskolakoekin batera. Udaletxean hartu zituzten txirrindulariak eta taldeko arduradunak. Hamazazpi txirrindulari dira guztira taldean, baina hamabik parte hartu zuten ekitaldian, tartean euskal txirrindularitzan erreferente diren Ane Santestebanek eta Lourdes Oyarbidek. Taldeko managerra den Aitor Galdos txirrindulari ohiak eta taldeko kirol arduraduna den Ion Lazkano (Mendaro, 1988) ere harreraren izan ziren, bai eta Joane Somarriba ere (Gernika, 1972), besteak beste, bi Giro, hiru Tour eta erlojupeko Munduko

Txapelketa bat (2003) irabazi eta Atenaseko 2004ko Olinpiar Jokoetan parte hartutakoa den txirrindulari ohiak. Elgoibarko Udalaren izenean, Maialen Gurrutxaga alkateak txapel bat oparitu zion Somarribari, bere kirol ibilbidearen aitortza gisa, eta Somarribak taldeko mailota eman zion trukean.

Udaletxeko ekitaldiaren ondoren, Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulari gaztetxoek arkuak egin zieten arkupeetan, gurpilak eskutan hartuta, eta Lagun Taldea txirrindularitza eskolakoekin ginkana ere antolatu zuten plazan. Baina Laboral Kutxako txirrindulariek Elgoibarren egin duten egonaldia probestuz, Udalak beste zenbait ekintza ere antolatu ditu asteon, tartean Elgoibarko herri eskolara eta ikastolara bisitak. Argazki gehiago eta bideoak: **[barren.eus](http://barren.eus)**

## Hainbat elgoibartarrek eta mendaroar batek hartu dute parte Hiru Handiak mendi lasterketan



**G**orbea, Anboto eta Aizkorriko tontorrak igarotzen dituen 101 kilometroko distantzia luzeko mendi lasterketa entzutetsua da Hiru Handiak, 10.000 metro baino gehiagoko desnibela duena. Parte-hartzaileek 24 orduko muga dute, gainera, ibilbidea osatzeko. Murgiako irteera lerrotik 1.000 mendi lasterkari abiatu ziren urriaren 14an, eta Julen Martinez de Estibariz gasteiztarra izan zen helmugaratzen azkarrena. 10 ordu, 44 minutu eta 48 segundo behar izan zituen 101 kilometroak egiteko. Emakumezkoetan, Ane Zabala arrasatearra

izan zen onena (14:30:02), eta garaipena eskuratu zuen lehiatzen zen estreinako ultra edo lasterketa luzean. Zazpi elgoibartarrek ere hartu zuten parte, eta horietako seik lortu zuten proba bukatzea. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinezek eta Laura Rodriguezek lortu zituzten postuak nabarmendu behar dira, 11. eta 14. postuetan sailkatu baitziren. Mendarotik Borja Rodriguezek ere parte hartu zuen, baina ez zuen lasterketa amaitzerik izan. Lehiatu ziren elgoibartarren bizipenak eta argazki gehiago [barren.eus](http://barren.eus) webgunean.

### Zapaldu dute Aloñako tontorra, laugarren saiakeran



Laugarrenean aidanez. Morkaikok azken hiru urteetan antolatu du Aloña mendira igoteko umeentzako irteera, baina guztietan bertan behera laga behar izan dute, elurteagatik ez bazen, haizeteagatik. Laugarren saiakera egin zuten joan zen domekan, eta eguraldia lagun, lortu zuten Aloñako gaina (1.238 metro) zapaltzea. "Haize pixka bat egiten zuen arren, mendian ibiltzeko eguraldi aparta eduki genuen,

eta lortu genuen gaina zapaltzea. Oraingoan bai!", esan dute Morkaikotik, bertan behera gelditutako saiakerak gogoan. Umeentzako mendi irteera sasoiari hasiera eman dion irteeran, Arantzazutik irten eta Durun barrera egin zuten tontorrerainoko bidea. "Goiz pasa ederra. Bista zoragarriak eta lagun arte bikaina". Hurrengo irteera azaroaren 12an egingo dutela aurreratu dute, Urregarai-Santa Eufemiara.



## Bueltan da Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldien zikloa

2019tik bertan behera lagata zuten ekintzetako bat berreskuratu du Morkaiko Mendizale Elkarteak: Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa. Elkarte barruko eskalada taldeak hartu du zikloa antolatzeko ardura eta elgoibartarroi herritik mugitu gabe urruneko parajeetara bidaiatzeko aukera emango diguten hiru hitzaldi lotu dituzte. Zikloa, baina, Bilboko Mendi Film Festivaleko azken edizioako film saritu eta arrakastatsuen emanaldiarekin hasiko dute, azaroaren 3an, 21:00etan. Urtero legez, alpinismoko eta eskaladako film onenak ikusteko aukera izango da Elgoibarko Herriko Antzokiko pantaila handian. Honako lau film laburrak: *Agur Artzai*, *This is Beth*, *New way up* eta Eñaut Izagirre elgoibartarrak eta bere abenturakideek ondutako *Into the Ice* ikusentzunezkoa. Sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira leihatilan, 4 euroan.



### Islandia ezezaguna bizikletaz, azaroaren 8an

Igone Mariezkurrenak azaroaren 8an emango duen hitzaldiarekin hasiko dute hitzaldi-zikloa. Pasai Donibaneko kazetari eta antropologoa bidaiari eta abenturazale amorratu da, eta Islandiara, Westfjords eskualdera (ipar mendebaldeko fiordoak) eginiko bidaia kontatzera etorriko da Elgoibarrera. 2022ko udaberrian eginiko bidaia da, bakarrik eta autosufizientzian, Gravel motako bizikletaz. Hilabete eman zuen Islandiako izkin ezezagunena den eskualdea arakatzen. Chris Burkard abenturazaleak 2021. urteko udan egin eta *bikepacking.com* web orrian argitaratu zuen bidea errepikatzen lehena izan da Mariezkurrena. Bidaian jasotako irudiekin jantziko du solasaldia. Kultur Etxean izango da, 19:00etan.

### Julio Villar, mendian eta itsasoan

Azaroaren 15ean Julio Villar Gurrutxagaren txanda izango da (Kultur Etxean, 19:00etan). Bidaiari, alpinista eta idazle donostiarra da, eta ikasketak goiz lagata, oso gazte zela hasi zen bidaiatzen eta eskalatzen. Euskal Herriko lehen alpinista belaunaldiko kideetako bat da, eta Pirinioetako eta Alpeetako igoerarik zailenetako

batzuetan parte hartutakoa da. Mendian izan zuen istripu larri batek geldialdi luze bat egitera behartu zuen, eta itsasora lekualdatu zituen bere abentura berriak. Munduari bira eman zion Mistral belaontzian, ia bost urteko bidaian. 1974. urteko Tximist espedizioan ere hartu zuen parte, eta 8.500 metroko garaieraraino igo zen Everest igotzeko espedizioan.

### Drangnag-ri mendian bide berria

Iñaki Arakistainek Alberto Fernandez, Joseba Larrañaga eta Mikel Zabalza sokalagunekin Drangnag-ri mendira eginiko espedizioan bide berri bat irekitzean bizitako bizipenak azalduko ditu, azaroaren 22an (Kultur Etxean, 19:00etan). Nepalen eta Txinaren arteko mugan dago 6.081 metroko mendia, Rowaling haraneko Ripimo glaziarraren buruan, eta euskaldunona izan zen mendi honetara eginiko hirugarren igoera. Arakistainek *Taghia, eguzkiz blai* proiektuaz ere berba egingo du.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **632 008 974**

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Orduka. **611 215 176**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Jardun osora lan egiteko prest. **615 379 164**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez. **620 757 528**

Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxez etxeko laguntzaile titulua daukat. **685 724 861**

Orduka edo etxeko langile moduan adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia. **602 490 595**

Adinekoak zein umeak zaintzen lan egiteko prest nago, orduka. **631 229 408**

Adinekoak zein umeak zaintzen lan egiteko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut. Etxeko langile moduan ere bai, astelehenetik barikura. **642 893 471**

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Gauetan bakarrik. **604 986 450**

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Orduka, gauetan ere bai. **631 425 686**

Gizonezkoa hainbat lan egiteko prest: eraikuntza-lanetan, tailerrean, sukaldari edo zerbitzari moduan, besteak beste. **624 353 029**

**PARTIKULARRAK**

Escola partikularrak ematen ditut Lehen Hezkuntzan. Matematika eta hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa), besteak beste. **674 463 800**

**GARAJEAK**

Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Sarrera erraza dauka. 18 m2 ditu. **626 591 658**

**ETXEBIZITZAK**

Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. **633 567 480**

**LOKALAK**

Herriko gazte bat naiz, eta lokal bila nabil, nire zaletasun bat gauzatu ahal izateko. Hilean gehienez 350 euro ordainduko nituzke errentagatik. **685 739 778 (Hodei)**

**KINTOAK**

1948an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 18an. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Interesatuak 65 euro ordaindu behar dituzte azaroaren 16rako. Laboral Kutxako kontu honetan sartu behar da dirua: ES12 3035 0007 25 0071142599.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Pasa Administrazioaren Lanaldi Erakundea</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosap@telefonica.net</b></p>	<p><b>Nire etxebizitzako terrazan baldosa batzuk apurtuta daude, eta jakin nahi nuke baldosa horiek ordezkatzea komunitateak egin behar duen edo ez.</b></p> <p>Terraza bat mantentzeko eta konpontzeko gastua nork bere gain hartu behar duen zehaztea terrazaren izaera komun edo pribatuaren arabera da. Elementu komunak badira, erregistroko dokumentazioan kontraktorik ezarri ez delako, ez dago zalantzarik: komunitateak bere gain hartu beharko ditu mantentze-lanak eta konponketak; alegia, jabe guztiek erantzun beharko dute, erabili nahiz ez. Arazorik handiena balkoiak eta terrazak pribatiboak direnean sortzen da. Kasu horretan, kanpoko estaldurak (Komunitatearen kontura konpondu eta mantendu beharrekoak) eta beste zatiak (lurzorua, esaterako) bereizi beharko dira. Kasu horretan, jabeak erabilera-baldintza onetan eduki behar du, eta ohiko erabileragatik hondatu denean konpondu egin beharko du. Higadura zoladuraren piezetan gertatu ohi da, eta jabearen erantzukizuna da berriz jartzea. Zoladuraren azpian, berez, komunak diren beste eraikuntza-elementu batzuk daude, hala nola iragazgaizte-geruza edo forjatuaren egitura. Elementu horiek hondatzen badira, komunitateak konponketaren kostuari aurre egin beharko dio.</p> <p><b>GOMENDIOA: Iragazgaizteak funtzionatzeari uzten dionean eta filtrazioak gertatzen direnean gertatzen da gatazka gehien. Kasu horretan, arazoa da zehaztea zein izan den iragazgaiztearen hutsegitearen arrazoia; izan ere, hura erabiltzen duen jabearen jarduketaren ondorioz gertatu bada, jabea izango da erantzulea, eta, beraz, bera izango da hura konpondu beharko duena, elementu komunak izan arren.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Danel**, gaur 2 urtetxo bete dituzulako. Muxu asko familiako guztion partez. Asko maite zaitugu!



Bai ospakizun luzea aurtengoa! Primeran pasatu dugu! Zorionak, **Izar!**



Zorionak, **Zoe!** Atzo 8 urte! Segi beti bezain pozik! Gure ametsik handiena zara, eta munduan gehien zeu maite zaitugu. Aupa, txapelduna! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!



1978an jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten zapatuan. Primeran pasatu zuten, eta hurrengorako gogoz geratu dira! Aupa 1978koak! Txalo bero bat antolatzaileei, lan bikaina egin dute-eta.

**MEMORY RESTORE KOLTZOIA**

180 cm-ko luzeerako koltzoietan **%5** gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**

1. BABES-ZORROA
2. BIOCELL PROFILATUA
3. VISCO MEMORY
4. STRECH ELASTANO EHUNA
5. ALDERANTZIKAGARRIA
6. ATSEDEN INDEPENDENTEA
7. DESFUNDAGARRIA
8. ERGONOMIKOA
9. ZIRKULAZIOA HOBETZEA
10. AKARO-KONTRAKOAK

Lezera: 90 | 105 | 135 | 150  
Prezioa: 725€ | 795€ | 1060€ | 1115€

ALTZAIRUZKO MILAN OHE ARTIKULATUA

**OPARI**  
Bukta eragotseko

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

Jon Aranoa  
Guillermo Torres

**Elgoibar Albaitaritza**

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Arduraberriz ostialdian: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leopoiidegi zerbitzua daukagu.  
Datu ordua hartzeko.

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**SAMSUNG DV80TA020TE/EC**  
**ARROPA LEHORGAILUA**

A+++  
↑  
D

**499 €**

- Ate itzulgarria
- Amaiera geroratu
- 8 kg-ko karga
- Bero-ponpa
- OpimalDry: sentsore bidez lehortzea

**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak / Produktuak agortu arte

## 27 BARIKUA

**18:00** Bakearen aldeko otoitza. San Bartolome parrokian.

**18:30** 7. arteari buruzko kafe tertulia. Haizeak antolatuta, Loredi Salegirekin, Lilan.

**19:00** Antzerkia: 'Greenpiss'. Yllana konpainiak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 28 ZAPATUA

### Azken zapatuko feria

**09:00** Baserriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan. ArTalde artisau taldekoek ere postua jarriko dute.

**11:00** Elgoibarko Lagun Taldeak kudeatuko du txosna. Herriko harategietako produktuekin egindako pintxoak salduko dituzte.

**12:00** Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

**22:30** Kontzertua: Puro Relajo. Maalako parkean.

## 29 DOMEKA

**10:00** Diana, Elgoibarko dultzaineroekin.

**12:30** Kontzertua: Popatik. Aita Agirre kulturgunean.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Gorka Mujika, Lucia Otaegi eta Beñat Isastik zuzenduko dute.

1. *First suite for military band* (March). G. Holst.

2. *Cómo entrenar a tu dragón*. J. Powell

3. *Hoosier suite*.

Robert W. Smith

4. *Piratas del caribe*.

K. Badelt

5. *Fanfare Apollo XI*.

D. Beltran

6. *Michael Jackson hit mix*.

J. Vinson

## 30 ASTELEHENA

**18:00** Hausnarketa taldea: 'Ez beldurtu, zoaz aurrera, zeure burua izango duzu lagun'.

Loredi Salegik gidatuta, Lilan. Elebitan izango da, eta ez da izenik eman behar.

## 31 MARTITZENA

**19:00** Santu guztien eguneko meza. San Bartolome parrokian.

## 1 EGUAZTENA

**11:00** Santu guztien eguneko meza. San Bartolome parrokian.

**12:20** Santu guztien eguneko meza. Mendaroko Azpilgoetan.

## 2 EGUENA

**17:45** Ipuin kontalaria: Alberto Bargas ipuin kontalariaren saioa, Mendaroko Udal Liburutegian. 4-8 urte bitarteko umeentzako.

**19:00** Animen Eguneko meza. San Bartolome parrokian.

### ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, **urriaren 29an, 03:00etan, ordubete atzeratu** beharko da ordularia.




**Maximo  
Gorosabel Velar**

2014ko irailaren 9an hil zen.

**Zenbat bizipen,  
zenbat oroitzapen.  
Gurekin betirako.**

Etxekoak



**Pilar  
Mendizabal Elgarresta**

2021ko urriaren 28an hil zen.

**GABA BELTZA****ELGOIBAR****Azaroaren 1era arte**

Ihes gela. Informazio  
gehiago: [labur.eus/ihesgela](http://labur.eus/ihesgela)

**Urriak 30, astelehena**

**17:00** Beldurrezko ipuinak,  
LH1ekoentzat.

**17:30** Beldurrezko ipuinak,  
LH2 eta LH3koentzat.

Udal Liburutegian.

**Urriak 31, martitzena**

**18:00** Mozorro tailerra.  
Kalegoen plazan.

**19:15** Ibilaldi beltza,  
Kalegoen plazatik, Maalara.

**MENDARO****Urriak 31, martitzena**

**18:00-21:00** Eskulanak,  
photocalla, eta diskofesta  
Herriko Enparantzan.



**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

**URRIA**

27 BARIKUA  
28 ZAPATUA  
29 DOMEKA  
30 ASTELEHENA  
31 MARTITZENA

**AZAROA**

1 EGUAZTENA  
2 EGUENA  
3 BARIKUA

**Egunez**

■ Oruesagasti  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
■ Ibañez  
Garitaonandia

■ Oruesagasti  
■ Fernandez  
Yudego

**2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**

**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Zinea****Herriko Antzokian  
'Cerrar los ojos'**

28, zapatua: 19:00 / 22:15

29, domeka: 19:00

30, astelehena: 21:00



**Joan ziñan gure artetik, aitta.**

**Baiña zure presentziak,**

**sugarraren antzera,**

**gure bizitza argitzen jarraitzen dau.**

Etxekoak

I. URTEURRENA

**Jesus Maria Aramburu Ormaetxea**

2022ko urriaren 23an hil zen, 74 urte zituela.





Danel  
Etxeberria  
Rodriguez  
5 urte, Elgoibar



*"Oporretako etxia"*



Enai  
Vilarchao  
Montecelo  
5 urte, Elgoibar



*"Robota"*

# IKUSI MAKUSI

Bakoitzetik zenbat diren asmatzeko gai zara?



- |              |              |
|--------------|--------------|
| ___ PIÑAK    | ___ ZUMOAK   |
| ___ SANDIAK  | ___ TXAPELAK |
| ___ IZOZKIAK | ___ PATINAK  |

# HITZAK OSATU

Hitzak osatzeko letrak egoki ordenatu eta ondoren marraztu!



T E L I M A T X E



A F E N T A E L E




# JEROGLIFIKOAK

Zer esan nahi dute jeroglifiko hauek?



Nola dago zuhaitza?



Noiz etorriko da zure arreba?



Zer eramango gaitu urrutira?



Erantzunak: \_\_\_\_\_

- 6 PATINAK
- 5 TXAPELAK
- 4 ZUMOAK
- 4 IZOZKIAK
- 7 SANDIAK
- 5 PIÑAK

- ELEFANTEA
  - TXIMELETA
- Hitzak osatu:

- BIDEAK (Bi-Deak)
- BIHAR (Bi-Har)
- TENTE (Ten-Te)

Jeroglifikoak:

# Tripontziak menuak barne hartzen ditu ogia, kafea eta ardoa

## Ardo zuria

Garcia Olano, % 90 viura eta % 10 verdejo

## Ardo beltza

Bodegas Aimarez, % 92 Tempranillo, % 2 viura eta % 2 Garnatxa

GEHIGARRIA  
+ 6 €

Botila bakoitzeko

## Txakolina

Sagarmña, % 100 Hondarribi zuri

## Ardo ondua

Ehun, % 100 Tempranillo

## baratxe

### EIBAR

Bidebarrieta 39

943 84 55 03

Etxeko aperitiboa

Lumagorri- eta barazki-kaneloia eskabetxean, melokotoia eta ahate moussea

Txipiroia puntalet gainean eta perretxikoak kalabaza-aparrarekin

Txahal-milorrria, tipula karamelutua eta gazta, patata-krematsua eta haragi-zukua

Mendaroko txokolatea, sasoiko frutekin eta erremolatxazko kurrustiarekin



DELAUSTECI  
BARAKALDO

### ELGOIBAR

Alastia 44

943 74 31 02

Etxeko aperitiboa

Donostiar erako txangurroz betetako hostopilezko bolobana

Bakailao ajoarrieroa barazkiekin eta otarrainxkekin

Onddoz betetako lumagorri-lingotea, txakolin saltsarekin

Mendaroko txokolate fantasia

Menua astelehenetik ostiralera eskuragarri

# Tripontziak

DEBABARRENA  
KLUB GASTRONOMIKOA

## Erreserbatu zure Tripontziak menua!

Azaroaren 3tik 26ra

Menua 35€

bez barne

## Mendiola

### ERMUA

Erdikokale 19

943 54 35 80

Ongietorriko aperitiboa

Zesar entsalada lumagorri eta xoxote gaztarekin

Ondarroako zapoz eta ganboiz osatutako chilli craba

Basatxerriko txerrien masail-taloa, tipula morearekin eta chipotle maionesarekin

Mango-konpota, Mendaroko txokolatez egindako mascarponearekin



### MUTRIKU

Laranga Auzoa,

943 60 32 42

Foie bonboia

Entsaladaz eta ezkur-urdaiazpikoz prestatutako tosta kurruskaria

Bakailao-kokotxa parrillan, pil-pil gainean baratxuriz eta txakolinez prestatutako olio errearekin

Txahalaren harakin-azpizuna parrillan, patata errearekin eta ardo beltz saltsarekin

Brioche-torrada, Mendaroko txokolate-zopa hotzarekin

## Bisitak

### Azaroak 4, larunbata

Chocolates de Mendaro 11:00 - 11:30

Tripontziak Dastaketa belaualdi berriaren eskutik

12:00 - 14:00

### Azaroak 9, osteguna

Arrietakua Jauregia 12:00 - 13:30

### Azaroak 11, larunbata

Dastaketa Mutrikuko Merkatu Txikian 12:00 - 14:00

(Ez da izena eman behar)

Goienetxe Gaztandegia 11:00 - 12:30

### Azaroak 16, osteguna

Armagintzaren museoa 12:00-13:15

### Azaroak 18 larunbata

Lasturko Talo Tailerra 11:00 - 12:30

### Azaroak 23, osteguna

Santa Maria Eliza 12:00 - 13:30

### Azaroak 26, igandea

Lizagasar sagartokixa 11:30 - 13:00

### Izen ematea

943 82 01 10

Ast- Ostir. 09:00 - 15:00

Plazak agortu arte

4 izen emate pertsonako

### Doan

## Txurruka

### SORALUZE

Txurruka Auzoa 11

943 75 15 81

Kalabaza-krema, ganba salteatuekin

Entsalada epela, letxuga, etxeko sagar-erre, intxaur eta euskal txerriaren hirugiharrekin

Legatza txakolin-saltsarekin eta parrillan egindako baserriko porruekin

Eusko label txahal-gisatua garagardo glasearekin eta patata eta ahuntz gazta moussea

Txokolate brownia urrekin, toffez beta